AZTERKETARAKO ARGIBIDEAK

Azterketaren egitura

Azterketa honek hiru atal nagusi ditu:

— 1. atalak 4 puntu balio ditu, eta galdera guztiei erantzun behar zaie.
— 2. atalak 3 puntu balio ditu, eta bi azpi-ataletan banatzen da. Azpi-atal bakoitzean aukera bakarrari erantzun behar zaio.
— 3. atalak 3 puntu balio ditu eta bi aukeren artean bakarrari erantzun behar zaio.

Jarraibideetan adierazitakoei baino galdera gehiagori erantzunez gero, erantzunak ordenari jarraituta zuzenduko dira, harik eta beharrezko kopurura iritsi arte.

Azterketaren galderei erantzun-orrian erantzun behar zaie, ez azterketan.

Zuzentasuna

— Irizpide orokorra: zuzentasunari loturik, azterketako 10 puntuetatik gehienez ere 2 (hots, % 20) kendu ahalko dira guztira, ortografia- eta gramatika-akatsak gehituta.
  — Azterketan egiten den lehenbiziko akats ortografikoa ez da zigortuko.
  — Bigarren akatsetik aurrera, akats bakoitzeko -0,25 puntu kenduko dira, gehieneko muga -2 puntu izanik betiere.
  — Hiztegi- eta gramatika-akatsengatik gehienez ere 1 puntu kendu ahalko da.
  — Hiztegi- eta gramatika-akats bakoitzeko -0,25 puntu kenduko dira, gehieneko muga -1 puntu izanik betiere.
  — Ikasleek emandako erantzun bat ez bada ulertzen, oinarrizko gabeziak, akatsak… dituelako, ariketa ez da ontzat joko.
  — Ariketa bat dena delakoagatik (ez zaiolako eskatutakoari erantzun, ez delako ulertzen) puntuatu gabe utzi bada edo *0* eman bazaio, ariketa horretako akatsak (ortografikoak, gramatikalak, lexikoak) ez dira zigortuko. Alegia, zuzentasunari lotutako zigorrak ezin du ekarri ariketa batean (ezta azterketa batean ere) kalifikazio negatiboa izatea.

Ez ahaztu azterketa-orrialde guztietan kodea jartzea

1. ATALA.- ULERMENA ETA EKOIZPEN IDATZIA (4 PUNTU)

Ondoren egunkari batean argitaratutako testu bat duzu. Irakurri arretaz eta erantzun galderei:

Ama-hizkuntza medikuntzan

Gipuzkoako emergentzietako zentro koordinatzailera deia iritsi da: “auto batek gizonezko bat harrapatu du, laguntza bidali lehenbailehen, mesedez”. Anbulantzia medikalizatua ziztu bizian iritsi da lekura. Gizonezkoa hil ala bizi dago, eta medikuak tratamendua jarri nahi dio. Orduan, galdera: “Alergiarik baduzu?”. Pazientearen erantzuna: “Ni ez naiz Aljeriakoa, marokoarra baizik”. Medikuak eta pazienteak ez dute elkar ulertzen, eta ezin da bete medikuntzako oinarrietako bat; alegia, pazientearen eta medikuaren arteko komunikazioa. Beraz, arriskuan jartzen da pazientearen ongizatea. Medikuntzako ikasleoi hasieratik bukaerara arte errepikatzen digute historia klinikoa behar bezala betetzearen garrantzia, aurrekariak, tratamendua eta uneko gaixotasuna ondo bilduz, gerora pazienteari diagnostiko egokia egiteko eta tratamendu aproposa jartzeko. Horretaz gain, osasun-langile guztien eginkizuna izan beharko litzateke egoera zaurgarrian dagoen pazientearekin ahalik eta hobekien komunikatzeko baliabideak izatea. Nola beteko du medikuak bere eginkizuna modu egokian, pazientearekin komunikatu gabe? Gaur egun, denon eskubidea da kalitatezko osasun-arreta jasotzea, eta, horretarako, ezinbestekoa da osasun-langileekin komunikazio egokia izatea, hau da, ahal dela norberaren ama-hizkuntzan artatua izatea. Izan ere, solaskideak dioskuna ulertzen ez dugunean, interpretatu egiten dugu egoera, eta interpretazioa tartean denean, medikuntzan batez ere, okertu egiten gara.

Egoera hori ez dugu euskaldunok bakarrik bizi. Giza Eskubideen Europako Hitzarmenak aitortu egiten du ingurune klinikoan pazienteek bizi duten egoera berezia eta askotan zaurgarria, eta argi eta garbi uzten du egoera horren aurrean osasun-langileek ezinbestean kontuan hartu behar dutela pazienteen ama hizkuntza.

Osasun-langile guztiek, etengabeko prestakuntzaren bidez, pazientearekin hobeto komunikatzeko tresnak eskuratu beharko lituzkete, eta ezinbestekoa da prestakuntza horren barruan ama-hizkuntzaren ezagutza ere sartzea. Horren harira, gomendagarria litzateke gure osasun-sistemara kanpotik datozen langileei harrera berezia egitea eta, Euskal Herriko osasun-sistemak dituen ezaugarriak azaltzeaz gain, gure hizkuntzaren berezitasunak, beharrak eta ezaugarriak ere ezagutaraztea. Kalitatezko osasun-arreta jasotzeko, guztiz beharrezkoa eta ezinbestekoa da bakoitzaren ama-hizkuntzan artatua izatea.

Ruth Salaberria

Elhuyar Zientzia (moldatua)

1.1. Ulermena (2 puntu)

1.1.1. Lagun artean eztabaidan ari zinetela, lagun bat heldu da zuengana: eztabaidagai duzuen testua ez duela ondo ulertu esan dizu, eta lau galdera hauek egin dizkizu. Erantzun labur. (1 puntu)

(a) Zein da testuaren hasieran deskribatutako egoeraren arrisku nagusia?

(b) Zergatik dio egileak komunikazio egokia ezinbestekoa dela medikuntzan?

(c) Nola lotzen du egileak ama-hizkuntzan artatzearen beharra pazientearen eskubideekin?

(d) Zer proposatzen du egileak osasun-langileen komunikazio-gaitasuna areagotzeko?

1.1.2. Beste lagun bat ere etorri zaizu: ez du testua irakurri, eta laburpena egiteko eskatu dizu. Egin ezazu, beraz, “Ama-hizkuntza medikuntzan” testuaren laburpena **(50-60 hitz)**. (1 puntu)

1.2. Ekoizpen idatzia (2 puntu)

Ruth Salaberriaren testua irakurrita, ikusi duzu osasun-langileen eta pazienteen arteko komunikazioak berebiziko garrantzia duela, eta hizkuntza-oztopoek pazienteen ongizatea arriskuan jar dezaketela. Idatzi gaiari buruzko iritzi-artikulu bat, zure esperientzia eta usteak azaltzen dituena **(150-170 hitz)**.

2. ATALA.- HIZKUNTZA ETA GIZARTEA (3 PUNTU)

2.1. Hizkuntza (1,5 puntu)

Irakurritako eta eztabaidagai izandako artikuluak berebiziko interesa sortu du zugan, eta zeuk ere gaiari buruz idaztea erabaki duzu. Izan ere, zure esperientzia eta ikuspegia beste pertsona batzuentzat lagungarri izan daitezke. Testua ekoizteko, prestaketa-lana egin behar duzu. Hautatu A edo B aukera (bakarra).

A aukera

2.1.1. Zure idazlanari dagokionez, nahiago duzu “Ama-hizkuntza medikuntzan” testuko hitz batzuk ez errepikatu, testua pertsonalagoa izan dadin. Horretarako, sinonimoen zerrendatxo bat osatu beharko duzu. Eman honako hitz hauen sinonimo bana edo azal ezazu, zure hitzen bidez, hitz bakoitzaren esanahia: (0,5 puntu)

a) *apropos*
b) *baliabide*
c) *eginkizun*
d) *ziztu bizian*
e) *alegia*

2.1.2. Halaber, trebatzen jarraitzearren, honako adizki hauek aldatu behar dituzu; zehazki, ondoren adierazitako moduan eman behar dituzu: (0,5 puntu)

a) *iritsi da*. Eman lehenaldi burutuan.
b) *jartzen da*. Eman geroaldian.
c) *dagoen*. Bihurtu alegiazko edo hipotetiko.

d) *egiten dugu*. Eman ahaleran.

e) *errepikatzen digute*. Eman lehenaldi burutugabean.

2.1.3. "Ama-hizkuntza medikuntzan" testuko ideia batzuk interesgarriak iruditu zaizkizu, baina ez dituzu beren horretan eman nahi. Eman itzazu azpiko pasarteak zure hitzak erabiliz: (0,5 puntu)

a) "Gizonezkoa hil ala bizi dago, eta medikuak tratamendua jarri nahi dio".
b) "Ni ez naiz Aljeriakoa, marokoarra baizik".
c) "Medikuak eta pazienteak ez dute elkar ulertzen, eta ezin da bete medikuntzako oinarrietako bat".
d) "Medikuntzako ikasleoi hasieratik bukaerara arte errepikatzen digute historia klinikoa behar bezala betetzearen garrantzia".
e) "Euskal Herriko osasun-sistemak dituen ezaugarriak azaltzeaz gain, gure hizkuntzaren berezitasunak, beharrak eta ezaugarriak ere ezagutaraztea".

B aukera

2.1.1. "Ama-hizkuntza medikuntzan" testua irakurri ahala, konturatu zara egileak zenbait eratorpen-atzizki baliatu dituela hitz berriak sortzeko. Bada, zeuk ere horretan trebatu nahi duzu, zeure idazlanari begira. Aurki itzazu bost eratorpen-atzizki ezberdin "Ama-hizkuntza medikuntzan" testuan eta, ondoren, asma itzazu adibide bakoitzari dagokion atzizki bera erabiliz, bina adibide gehiago. (0,5 puntu)

2.1.2. Ondoren *Euskaltzaindiaren hiztegi*ko bost definizio dituzu, eta horiei dagozkien hitzak aurkitu behar dituzu Ruth Salaberriaren "Ama-hizkuntza medikuntzan" izeneko testuan: (0,5 puntu)

a) "Dabilen zerbaitek bere bidean pertsonaren bat edo animaliaren bat jo".

b) "Eroso eta estutasun materialik gabe bizi denaren egoera".

c) "Zerbaiten aurretik gertatu den gauza, hura nolabait azaltzen duena edo haren kausa edo eragiletzat har daitekeena".

d) “Zerbait hala dela onartu; zerbait edo norbait halakotzat ezagutu”.

e) “Saihetsezina denaren nolakotasuna”.

2.1.3. “Ama-hizkuntza medikuntzan” testuko ideia batzuk interesgarriak iruditu zaizkizu, baina ez dituzu beren horretan eman nahi. Eman itzazu azpiko pasarteak ondoan dituzun elementuak baliatuz: (0,5 puntu)

a) “Gizonezkoa hil ala bizi dago, eta medikuak tratamendua jarri nahi dio”.
Elementua: *beraz.*

b) “Ni ez naiz Aljeriakoa, marokoarra baizik”.
Elementua: *ezpada*.

c) “Medikuak eta pazienteak ez dute elkar ulertzen, eta ezin da bete medikuntzako oinarrietako bat”.
Elementua: *horrenbestez*.

d) “Medikuntzako ikasleoi hasieratik bukaerara arte errepikatzen digute historia klinikoa behar bezala betetzearen garrantzia”.
Elementua: *digutenez,*

e) “Euskal Herriko osasun-sistemak dituen ezaugarriak azaltzeaz gain, gure hizkuntzaren berezitasunak, beharrak eta ezaugarriak ere ezagutaraztea”.
Elementua: *ez ezik*

2.2. Gizartea (1,5 puntu)

Atzerriko lagun bat Euskal Herrira etorri da, eta hamabostaldia egin du bertan, leku batetik bestera bidaiatzen. Hizkuntza bat baino gehiago entzun eta ikusi ditu egunotan, eta horrek jakin-mina eragin dionez, ondoren aurkituko dituzun bi galderak egin dizkizu. Bakarrari erantzun behar diozu.

A aukera

Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian barna ibili ondoren, alde nabarmenak ikusi ditu zure lagunak, adibidez karteletan. Horren

harira, euskarak leku horietako bakoitzean duen ofizialtasun-mailari buruz galdetu dizu, ea guztietan bera den edo ezberdintasunak dauden. Emaiozu azalpen xehea. **(50-80 hitz)** (1,5 puntu)

B aukera

Bidaiatu ahala, entzundako eta irakurritako euskarak ere askotarikoak direla esan dizu. Lehiaketa baten berri izan duela esan dizu, baina ez duela guztiz ondo ulertu. Zehaztu egiozu zein euskalkitan dagoen ondoko testua, identifikatu euskalki horretako 4 ezaugarri eta azaldu zer esan nahi duten: **(50-80 hitz)** (1,5 puntu)

Eingule?' Lehiaketea Bermeoko jaietan

Andra Mari eta Santa Eufemia jaiak ospatuko dabez laster. Jaiok girotzeko, *Eingule?* lehiaketea atondu dabe. Gazteen parte-hartzea sustatu guran, Udalak eta Txosna batzordeak txosnagunea edegiten dan egunerako, irailaren 6rako, lehiaketea prestau dabe. Lehiaketearen helburua bertoko hizkerea, identidadea eta kulturea hedatzea da, eta herritarrei nortasuna emoten deutsen hizkereak egunerokorako daukan balioa agerian ixtea. Horretarako, herrian erabilten diran berba errazak berreskuratu gura dabez. *Eingule?* lehiaketan parte-hartzea herritar guztiei edegita dago; banaka, bikoteka edo taldeka parte hartu daiteke eta telefono bidez olgau beharko da. Parte-hartzaileek 24 galdera erraz erantzun beharko dituez, eta puntuazino altuena lortzen daben lehenengo hiru parte-hartzaileek irabaziko dituez sariak: herriko denda baten gastetako 60, 100 eta 150 euroko txartelak.

(*BAtaria*, 2025/09/04, moldatua)

3. ATALA.- LITERATURA (3 PUNTU)

Azken ikasturtean euskal literatura lantzen aritu zara ikastetxean: gaitegia landu duzu, iruzkinak egin dituzu, nahitaezko irakurgaiak arretaz irakurri dituzu… hain zuzen, ondoren datozen bi galdera-sortetako bati (bakarra hautatu) erantzuteko.

A aukera

3.1. Zure ustez, zergatik du Miren Agur Meaberen lanak *Azalaren kodea* izenburua? Zer-nolako garrantzia du *azala*k liburuan? Erantzun galderari, irakurrita duzula erakutsiz; alegia, liburuan ageri diren ideia, irudi eta abarrak gogora ekarriz. **(50-70 hitz)**. (1 puntu)

3.2. Azaldu zergatik lotzen den euskal eleberrigintza modernoaren sorrera Txillardegi eta Saizarbitoriarekin, eta zertan ezberdintzen den eleberrigintza hori Txomin Agirrek ezarritako ohiturazko eleberrigintzaren eredutik. **(100-120 hitz)**. (2 puntu)

B aukera

3.1. Aipatu Miren Agur Meaberen *Azalaren kodea* poema-liburuan ageri diren gai nagusietako bi. Ondoren, azaldu horietako bat **(50-70 hitz)**. (1 puntu)[1]

3.2. Ondoren testu bat duzu. Zer-nolako paisaia azaltzen du? Zer iritzi du egileak paisaia horri buruz eta zergatik dio “Nerbioi inguruari Euskal Herriko alderdia baino, Londresko auzotegia hobeto deritzot”? **(100-120 hitz)**. (2 puntu)

Nerbioi ibai zabala, ibai ospetsua, Euskal Herriko ibai guztien ibaia da, denok dakigu. Bere gainean dauzka, Bilbotik hasi eta Portugaleteraino, herri askotako itsasontzi sendoak; bere azpian, uretan edo urertzeko basatan, txalupa saihets, gabarra zati, soka ustel, kate zahar eta aingura herdoilduak; bere albo lehorretan,

[1] Eredu honetan poema-liburuari buruzko bi galdera ageri dira. Azterketetan, aldiz, ez dira nahitaezko irakurgai berari buruzko bi galdera emango: bi aukera emango dira beti.

erbestera eraman behar diren edo erbestetik ekarri dituzten mea pila ugariak, neurrian ebakitako pinuko oholak, harri, kare, gatz eta burdinak; burdin mehe zabalak, biribil luzeak, hutsak eta beteak, bideetarako, zubiak egiteko, aterpeak jasotzeko, etxeen habe izateko, eta batez ere burdin horien sorrerako labe goriak, berebiziko lantegirik handienak, sua eta garra, hautsa eta ke lodia bor-borrean zerua iluntzeraino jaurtiz; hantxe dakusgu jantzi lohi, izerdi usain eta begirune gaiztoko langile zikin zetakaz beteak, eta bertan entzun litezke hiri handi baten indar, ahalmen eta bizitza erakusten duten gizadi marmarretak, mailuen danbatekoak, itsasontzien turrutak, tximista-gurdien txintxinak eta sugurdi azkarren tipirri-taparra luze adoretsuak.

Nerbioi inguruari Euskal Herriko alderdia baino, Londreseko auzotegia hobeto deritzot.

Txomin Agirre, *Garoa* (1912) (moldatua)

Hiztegitxoa

Basa: ‘lupetz, lokatz’.

Txalupa-saihets: ‘txalupa-albo’.

Mea: ‘mineral’.

Dakusgu: ‘ikusten dugu’.

Zetaka: ‘orban, zikindura’.

Marmarreta: ‘murmurio, ahopeko esanak’.

Tximista-gurdi: ‘tranbia’.

Su-gurdi: ‘tren, lokomotora’.